

DIRU ITURRIAK

Gure enpresak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuen bidez diru-sarrerak jasotzeko, funtsezkoa da bezeroek **zenbat** eta **nola** ordaintzeko prest dauden ulertzea. Tailer eta ekitaldi puntualen bidezko ordainketa bakarretik hasita, harpidetza-planen bidezko ordainketa errepikarietarako, **aukera anitzak** eskaintzen ditugu bezeroen beharrak asetzeko.

Eskaintzen ditugun tailerrek (eskulanak, sukaldaritza, eta laguntza tailerrak) diru-sarrera ugari sortzeko ahalmena dute. Honako iturri nagusi hauek erabil ditzakegu, gure negozio-eredua kontuan hartuta:

Gure **tailerrek**, hala nola **eskulanak**, **sukaldaritza** eta **laguntza tailerrak** (ikasketetarako edo etxerako lanetarako laguntza), diru-sarrerak sortzeko aukera zabala eskaintzen dute. Jarduera hauek hainbat estrategia baliatuz ustiatu daitezke, horien artean:

1. Aktiboen Salmenta: Tailerretan sortutako produktuak saltzea, hala nola artisau-produktuak eta dekorazio elementuak (5-15 € artean), edo sukaldaritza tailerretan prestatutako errezeta-kitak eta janariak (8-15 € artean).

2. Erabileragatiko Saria: Parte-hartzaileei tailer bakoitzeko kuota finko bat kobratzea:

- Eskulan tailerrak: 2,99 €/pertsonako.
- Sukaldaritza tailerrak: 7,99 €/ pertsonako.
- Klase partikularrak: 4,99 € /(1-2 orduko saioa).

3. Harpidetzagatiko Saria: Hileko harpidetza-planak eskainiz, parte-hartzaileek tailer ugarietara sarbidea izan dezakete:

- Oinarrizko plana: 20,99 €/hilean, tailer mugatuetarako sarbidea.
- Aurreratua Plana (30,99 €/hilean): Tailer gehiagotan parte hartzeko aukera.
- Premium plana: 40,99 €/hilean, tailer guztietara eta eskusiboetara sarbidea.



4. Mailegua eta Alokairua: Tailerretan beharrezko ekipamenduak alokairuan ematea, adibidez, sukaldaritza tresnak elikagai prozesagailuak, labe txikiak 1-10 € tailer bakoitzeko.

5. Lizentziak eta Komisioak: Gure tailerretarako erabiltzen diren metodologia edo material espezifikoak beste enpresei edo profesionaleri saltzea, eta komisio bidez diru-sarrerak sortzea. Hala nola, sukaldaritza tailerretarako errezeta-kit berezien lizentzia saltzea, eskulan tailerretarako teknika bereziak erakusteko eskubidea saltzea.

6. Broker edo Komisio bidezko Sariak: Beste enpresen produktu edo zerbitzuen sustapena tailerren testuinguruan. Adibidez, eskulan tailerretan erabiltzen diren materialak hornitzen dituzten enpresen produktuak sustatzea, horien truke %5-%10 komisio jasotzea edo Sukaldaritza tailerretan janari-hornitzaileen osagaiak erabiltzea eta sustatzea.

7. Publizitatea: Tailerren espazio fisikoetan edo webguneetan iragarkiak txertatzea, enpresa eta produktu desberdinen sustapenerako. Besteak beste, eskulanetako materialak edo sukaldaritzako tresnak saltzen dituzten enpresen iragarkiak gure tailerren espazio fisikoetan edo webgunetan txertatzea eta ikasleei zuzendutako bestelako zerbitzuen sustapena (ikastaro osagarriak, gida-liburuak). Adibidez, demagun Fagor enpresaren tresnak erabiltzen ditugula, tailerra egiten dugun bitartean hoiek gomendatuko dizkiegu gure bezeroei.

Bestalde, **irteerak aisialdirako eta turismorako proposamenak** dira, helburu anitzekin: mendira joatea naturaz gozatzeko eta kirol aktiboa egiteko; herri edo hiri desberdinak bisitatzea, bisita kulturaletarako edo ekitaldi berezietarako; eta hondartzara joatea, eguraldi onarekin lotutako jarduerak egiteko. Kasu hauetan, horrela lortuko ditugu diru sarrerak:

1. Aktiboen Salmenta: Mendira, herrietara edo hondartzara irteeretan beharrezko produktuak eta materialak saltzea. Esaterako, mendiko mapak, gidak, edateko ur-botilak, linternak edo eguzkitako krema. Produktu hauek irteerekin lotuta eskainiz, diru-sarrera gehigarriak sortzen dira eta erabiltzaileen erosotasuna handitzen da.



2. Erabileragatiko Saria: Irteera bakoitzaren truke tarifa bat kobratzea:

- Mendiko edo hondartzako irteera gidatuak: 4,99 €/personako eta orduko.
- Herri edo hiri bisita gidatuak: 6,99 €/personako.

Diru-sarrerak parte-hartzaileen kopuruaren eta jardueraren iraupenaren arabera doituko ditugu.

3. Harpidetzagatiko Saria: Bezeroek irteeretarako sarbidea edo deskontuak izango dituzte harpidetza-plan baten bidez:

- Oinarrizkoa (20,99 €/hilean): Hondartzako eta herrietako irteerak barne.
- Aurreratua (30,99 €/hilean): Mendiko ibilaldiak eta gida espezializatuak barne.
- Premium (40,99 €/hilean): Jarduera guztietarako sarbide osoa eta deskontuak irteera eskusiboetan.

4. Mailegua, Renting-a eta Alokairua: Material eta ekipamendu espezializatuak alokatzea: Esaterako, **mendiko jardueretarako:** motxilak, makilak edo arropa edo **hondartzako jardueretarako:** Hondar-jokoetarako materialak, esertzeko aulkiak edo itzalpea emateko egiturak. Erabiltzaileei erosketarik gabe parte hartzeko aukera ematea eta diru-sarrera osagarriak sortzea da honen helburua.

5. Lizentziak: Irteerak antolatzeko metodologia beste enpresei edo gidariei lizentzizatzea. Adibidez, "Mendiko jarduera seguruak" gida saltzea. Inbertsiorik gabe diru-sarrera pasiboak sortzea da honen onura.

6. Broker edo Komisio bidezko Sariak: Beste enpresekin elkarlanean jarduerak sustatzea eta komisioak jasotzea. Alegia, Bidaia agentziekin (Eroski Bidaiak, adibidez) lankidetzak edo hondartzako jarduerak eskaintzen dituzten enpresen sustapena. Kostu baxuko diru-sarrerak eta lankidetzak sareak sortzen ditugu.

7. Publizitatea: Irteeretarako plataformetan edo materialetan iragarkiak saltzea. Tokiko negozioen sustapena edo babesleen iragarkiak aplikazioetan eta jardueretan txertatzea, Google iragarkien bidez egindakoak.

Aitzitik, **janari-eskaerak eta zerbitzuak eskaintzeko negozio** eredu anitz garatzeko aukera dago. Hemen proposatzen diren irtenbideek bezeroen behar desberdinak asetzen dituzte, bai puntualtasunean, bai jarraikortasunean, eta irabazi-iturri berritzaileak sortzeko aukera ematen dute.

1. Erabileragatiko Salmenta: Bezeroek eguneroko, asteko edo hileko menuak eskatu ditzakete banaka, beraien gustu eta beharretara egokituta. Honek aukera ematen die zerbitzua probatu nahi duten erabiltzaileei malgutasun osoz erabakiak hartzeko.

- Eguneroko menua: 7 €
- Asteko menua: 35 €
- Hileko menua: 130 €

Honek, zerbitzuaren kalitatea eta esperientzia probatzeko aukera eskaintzen du. Baita malgutasun handia bezeroentzako, harpidetzarik egin gabe ere. Azkenik, bezero berriak erakartzeko aukera ematen du.



2. Harpidetza Saria: Hileko kuotaren bidez, menu estandarizatuak edo pertsonalizatuak eskaintzen dira, bezeroaren beharrak asetzeko. Harpaidetzaren onurak: Diru-sarrera iraunkorrak eta erregularrak sortzea, Bezeroek konfiantza handiagoa izaten dute zerbitzu jarraituetan eta zerbitzuak fidelizazioa sustatzen du.

- Oinarrizko Harpidetza: Asteko menu estandarizatuak (44,99 €/hilean).
- Aurreratua: Menu pertsonalizatuak dieta, alergiak edo elikadura-ohiturak kontuan hartuta (55,99 €/hilean).
- Premium: Janari-prestatuen entrega mugagabea (60 €/hilean).

3. Mailegua, Renting-a eta Alokairua Bezeroei janaria prestatzeko ekipamendu espezializatuak alokatzeko aukera ematen zaie, gastu handirik egin gabe. Honek Sukaldaritza esperimentatzeko eta hobetzeko aukera ematen du, inbertsio handirik gabe, bezeroek kalitatezko baliabideak eskuratzen dituzte eta negozio txikientzat aukera proposa da. **Alokairu aukerak**, hala nola, Irabiagailuak, lurrun-labeak, edo hozkailu espezializatuak. 5-15 €/eguneko prezioarekin, tresnaren arabera. Honek Fagor-etik ekerriko ditugu.

4. Lizentziak Janari-planak eta errezeta-metodologiak beste negozio edo profesional batzuei lizentzia bidez eskaintzea. Eskala handitzeko aukera ematen digu, nazioarteko merkatuetara iritsiz. Lizentzien bidez diru-sarrera pasiboak sortzen dira. Negozio-eredu eraginkorrak partekatuz errentagarritasuna hobetzen da. Beste sukaldari edo enpresei janari-plan pertsonalizatuak eta errezeta sistema erabiltzeko baimena ematea. **Janari-planak edo elikadura-metodologiak saltzea** da gure plana.

5. Broker edo Komisio bidezko Sariak: Tokiko hornitzaileekin elkarlanean aritzea, beraien produktuak plataforman eskainiz, komisio bidezko irabaziak sortuz. Hornitzaile batek asteko menua 35 €-tan saltzen badu, guk 4 € jasotzen ditugu transakzio bakoitzeko. Inbertsio txikia eskatzen ditu. Tokiko hornitzaileekin lankidetzat sustatzen du. Zerbitzuen eskaintza zabalagoa eta anitzagoa bihurtzen da.

6. Publizitatea eta Iragarkia: Plataforman janari osasuntsuarekin lotutako produktuak eta zerbitzuak sustatzea: gida-liburuak, sukaldaritza-tresnak edo osasun produktuak, esate baterako Fagor. Hauek dira etekinak: Diru-sarrera osagarriak sortzen dira, beste enpresa eta markekin lotura sendotzen da eta Plataformaren ikusgarritasuna areagotzen da.

Azkenik, jardueretan oinarritutako negozio-ereduek aukera ugari eskaintzen dituzte diru-sarrerak sortzeko eta enpresen egonkortasuna lortzeko. Hainbat eredu daude, bezeroen beharrei eta gustuei egokituta, eta horien bidez enpresek produktu eta zerbitzu ezberdinak eskaintzen dituzte. Erabiltzaileen beharrei eta gustuei erantzuten dieten zerbitzuak eskaintzeak, gainera, bezeroen fidelizazioa eta diru-sarrera iraunkorrak ekar ditzake. Azken finean, jarduera mota hauek aukera paregabeak eskaintzen dituzte negozioak hobetzeko eta hazteko.

1. Aktiboen Salmenta Jardueretan erabilitako ekipamenduak edo materialak (adibidez, kirol arropa, ura botatzeko botilak, bizikleta osagarriak) zuzenean saltzea. Kirol materialari dagokionez, adibidez, Forum Sport enpresa izango dugu bazkide horrelakoak lortzeko. **Abantailak:** Produktuen salmentak berehalako irabaziak sortzen ditu, alegia, diru-iturri azkarra, **kalitatezko materiala eskaintzea** (parte-hartzaileek produktuak erosi eta berehala erabiltzeko aukera dute) eta **marka sustapena** (produktuak enpresaren logotipoarekin pertsonalizatu daitezke, publizitate gehigarria sortuz.)

2. Erabileragatiko Salmenta: Erabiltzaileek jarduera bakoitzaren truke kuota bat ordaintzea. Prezioak jardueraren iraupenaren eta parte-hartzaileen kopuruaren arabera egokitu daitezke. Hala nola, Yoga klaseak 2,99 € ko prezioarekin klase bakoitza. Prezio garden eta zehatzak eskaintze eta Parte-hartzaile bakoitzaren ekarpenaren arabera diru-sarrera egokitzea dira etekin nagusiak.

3. Harpidetzagatiko Saria: Hileko edo urteko harpidetza-planak, erabiltzaileei jardueretan parte hartzeko sarbidea eskainiz. Diru-sarrera erregularrak sortzea, Bezeroen fidelizazioa sustatzea eta Zerbitzu pertsonalizatuak balio gehigarria eskaintzea pobretxu nabarmenena

- Oinarrizkoa: Jarduera errazetarako sarbidea (mendiko irteerak, yoga).
- Aurreratua: Talde pribatuak eta entrenamendu espezializatuak barne.
- Premium: Jarduera guztietarako sarbide mugagabea eta zerbitzu eskusiboak.

4. Mailegua, Renting-a eta Alokairua Jardueretarako ekipamendu espezializatuen alokairua, erabiltzaileei erosketarik egin beharrik gabe. Adibidez, Futboleko botak: 2,50 €/egunean edota bizikletak edo eski-materiala: 10 €/egunean. Adibide hau jarraituz, lehen aipatu dugun moduan, produktu hauek lortzeko elkarlanean arituko gara Forum Sport enpresarekin. **Abantailak** kostu baxuko aukera erabiltzaileentzat eta ekipamendu espezializatuarentzat sarbidea eskaintze dira.

7. Publizitatea Jarduerak egiteko erabiltzen den plataforman edo ekitaldietan publizitate espazioak saltzea. Hau da, Jardueren hasieran babesleen logotipoak erakustea eta Materialetan edo aplikazioetan tokiko negozioen iragarkiak txertatzea. Onuragarria da diru-sarrera gehigarriak eskaintzen dituelako eta Babesleen eta enpresaren ikusgarritasuna handitzean duelako.



ORDAINKETA BAKARREKOAK

Bezeroak jarduera puntual eta espezializatuengaitik prezio eskuragarriak ordaintzeko prest daude.

ESKULAN TAILERRAK

2,99 € parte-hartzaile bakoitzeko, 2-4 orduko iraupenarekin.

MENDIKO IRTEERAK

0,99 €/orduko, gidatutako eta seguruak diren jarduerak izanik.

SUKALDARITZA IKASTAROAK

8 €/parte-hartzaile bakoitzeko, plater tradizionalak edo berritzaileak prestatzen ikasteko.

ORDAINKETA ERREPIKARIAK

Harpidetza-planen bidez, bezeroek hileroko edo urteroko ordaintzeko prest daude, zerbitzu sorta egokitu eta etengabe jasotzeko.

OINARRIZKO PLANA

20,99 €/hilean — jarduera oinarritzat hartzen da.

AURRERATUA PLANA

30,99 €/hilean — zerbitzu aurreratuak eta esperientzia pertsonalizatuak.

PREMIUM PLANA

40,99 €/hilean — jarduera eta zerbitzu eksklusibo guztiak barne hartzen ditu.

GAZTEENTZAKO PLANA

13,99 €/hilean — 16-24 urte bitartekoentzako kuota murriztua

FAMILIA PLANA	45,99 €/hilean – 4 erabiltzaile sartzeko.
URTEKO PARTAIDETZA	25 €/hilean – B Planean 35€/hilean – C PLANA

Alde batetik, **Urteko Harpidetza Deskontuak** Hilean kuota bat ordaindu beharrean, urte osorako harpidetza eskaintzen dugu, adibidez, urteko harpidetza hilean

- B Planean: 25€ tan eskaini daiteke (300 € / urtean), horrela bi hilabete doan bezala izango litzateke.
- C Planean: 35€ tan eskaini daiteke (420€ / urtean), horrela hilabete bat eta erdi doan bezala izango litzateke.

Beste alde batetik, **familiako Planak** eskainiko ditugu, adibidez, 4 erabiltzaile sartzeko hilean 45,99 €tan (kide bakoitzak 11,25€ ordainduz). Honek familiako kide guztiak jardueretan parte hartzeko aukera emango luke, familia osoarentzako proposamenak eta tailerrak sortuz.

Honez gain, **Epe laburreko probarako eskaintzetan** hilabete bateko doako proba eskaintzen dugu, erabiltzaileek zerbitzuak probatu eta gehiago ordaintzeko motibatuta senti daitezen.

Azkenik, **Gazteentzako planak** eskainiko ditugu, 16-24 urte arteko erabiltzaileentzako. Horrela gazteak, diru hainbeste ez duen gentea izaneran, aukera izango dute gure aktibitateetan parte hartzeko.

- A plana: 13,99€ koa izango da.
- B plana 20,99€ koa
- C plana 30,99€koa.

Gure enpresak eskaintzen dituen produktuak eta zerbitzuak bidezko diru-sarreraren aukera ugari eskaintzen ditugu, eta horrek aukera paregabeak ematen dizkio negozioari hainbat iturri ekonomiko sortzeko. Azkenik, enpresak aukera ugari ditu diru-sarrerak sortzeko, eta hainbat eredu ekonomiko eskaintzen ditu bezeroen beharrak eta gustuak asetzeko. Horrela, gure negozioak egonkortasuna eta hazkundea lortzeko bidea izango du, bezeroen gogobetetasuna eta zerbitzuen kalitatea beti lehenetsiz.